



Murgoitioamandarro *etxebizitza*

Aldacrak: Murgoitioandikoa / Amandarrona
Ahozkoa: Amáandarro / Amándarrona
Murkutidxandikue



43° 9' 41"

2° 33' 40"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*“... la mitad de la casería titulada Murgoitio andicoa... situada en jurisdicción de la Anteglesia de Berriz, que comprende cuarenta y cinco estados equivalentes a ciento setenta y un metros, y la que se compone de piso llano, zaguan, cocina, aposento y cuadras, y de piso alto con camarote y pajar...”
DJE 2/128 or. (1866)*

Murgoitioiko *Done Joanes (Ikus Done Joanes)* gainean kokaturik, Elorrio aldeko mugatik gertu dagoen baserri hau historian zehar izen desberdinekin ezagutu izan dugu. 1792. urtean *Amandarro Murgoitio* (BAHP, A499/33) aurkitzen dugun bitartean, XIX. mendearen lehen erdian *Murgoitio Amandarro* (1816, BAHP, A169/12) izena ematen zaio. Mende horretako bigarren erdian, aldiz, *Murgoitio andicua* (1867, JCR 2908/008) eta *Amandarro* (1868, DJE, 2/154. or.) aurkitzen ditugu. XX. mendean, ahozko erak nagusitu izan dira, eta *Amandarro* moduan ezagutzen da. Auzotarren artean, ahozko

transmisioan ere *Amáandarro*, *Amándarrona* eta *Murkutidxandikue* izenak dira erabilienak.

Oso baserri etxe berantiarra, ateburuko eta leihoburuetako hormigoiak ederto frogatzen duen moduan. Hala ere, etxea eta fatxadaren eskema XX. mende hasierakoen berbera da. Beheko solairua, lehena eta ganbara. Atea, erdian; gainean, balkoia; leihoak, alboetan; eta ganbaran ere leihoak, neurri desberdinetakoak teiltuaren formari egokitzeko. Solairurik inportantee-netako hormetan harlandua bistan du; gorenekoan, ostera, luzitu eta zurituta.

“...ona leprosuak ekarten sittuen, Elorrixoko ospittala isen san au, isen nik eneban esautu e .. senbat urte isengo dien? Ba, bosteun ero seireun ero estaitt senbat isengo dien, saspireun ero estaitt ...da gure aittek esateban selan leprosuak or e, ospittala selan isen san...”

Visitacion Berriozabalgaitia.

toponimia

Murgoitio leku izenaz eta Elorrioko Amandarro deituraz osatutako etxe-izena dugu.